



## **PRENTSA OHARRA**

Presentziatzko salmentak eta online salmentak sustatzeko baliabideak eman nahi dizkiete bazkideei

# **bilbaoDendakek eta Kutxabankek COVID-19aren aurrean indarrak batu dituzte**

- Beharrezko irizten diote tokian tokiko merkataritza negozio digitalera egokitzeari, batik bat online salmentek izan duten igoerarengatik
- bilbaoDendak elkarteak bultzatzen dituen sustapen-jarduerei laguntza emango die Bankuak, 'Opari' txartelen zozketak edota Bilboko Komertziorako Sariei esaterako, eta finantza-irtenbide katalogo zabala jarriko du euren eskura

**2021ko urtarrilaren 18an.** bilbaoDendakek eta Kutxabankek lankidetzaz hitzarmen berria sinatu dute, eta tokian tokiko negozioek errealitate berriari egokitzeko duten beharra azpimarratu dute, Covid 19ak sortutako krisi-egoeran salmenta digitalek hazkunde nabarmena izan baitute.

Finantza erakundearen eta Bilboren sustapen komertzialerako eta turistikorako plataformaren arteko hitzarmena **Rafael Gardeazabal** bilbaoDendak elkarteko presidentea, eta **Xabier Solaeche** Kutxabanken Xehakako Sarearen Bizkairako zuzendariak sinatu dute.

Presentziatzko salmentak moteldu diren testuinguruan, Kutxabankek era guztietako saltokietan teknologia berrien erabilerak izan duen hazkundera sumatu du, hauek ahalegin handia egiten ari baitira beren jarduerari eusteko.

Horregatik, alde bietan adostu dute urruneko salmentak bideragarri egiteko baliabideak negozioen eskuetan jartzea, tamaina desberdinetako eta fakturazio-bolumen anitzeko negozioei egokitutakoak.

bilbaoDendak plataformak komertzioaren 12 gune-elkarte, Erriberako Merkatua, Zubiarte eta El Corte Inglés integratzen ditu eta plataformaren presidentearen iritziz "etorkizuneko erronkak jasagarritasuna eta digitalizazioa dira, azken hau



erabakigarria da bizirik irauteko. Akordio honen bitartez, salmentak handitu ditzaketen baliabideak eskura ditzakegu, erosleen ohitura berriei erantzun eta negozioa dagoen lekura bertara iristeko”.

Xabier Solaechekek azpimarratu duenez,” osasun krisialdiak argi utzi digu, era bortitzean gainera, salmenta-digitalen ekosistema berria hemen dugula, eta salmenta arin, erraz eta erosoak egin ahal izateko konponbideak eman behar direla. Bilboko negozioek lankide leiala dute gudan tresna teknologiko berriak aurkitu eta kontsumitzaile berriaren profilari erantzuteko”.

### **Jarduera komertziala sustatu**

Hitzarmenaren gakoetako bat bilbaoDendak integratzen duten saltokien salmentak erraztea da, horretarako, Kutxabanke euren eskuetan jarriko du Komertzio Kreditua osatzen duten finantza-produktuen eskaintza zabala.

Kutxabank Kredit, Banku Taldearen kontsumorako maileguen atalak bere erosketak **Komertzio Kredituaren** bitartez finantzatzeko aukera eskaintzan dio bilbaoDendak elkarteko saltokien azken bezeroari. Kreditu mota horren ezaugarri nagusia da tramiterik eta paperik ez duela eskatzen, eta saltokian bertan egiten dela.

bilbaoDendak elkarrearen kide diren negozioen lehiakortasuna hobetzeko helburuz, Kutxabanke **negozio hipoteka mailegua** jarriko du horien eskura, negozioen kokaleku diren higiezinak erosteko, edo **negozio mailegua** zirkulatzailer beharizaneiei erantzuteko edo ekipamendu profesionalaren erosketak finantzatzeko, altzarrietatik hasita makineriaraino, garraiorako osagarriekin batera.

Gainera, bilbaoDendak elkarteari lotutako negozioek negozio horien eguneroko kudeaketa errazteko bereziki diseinatutako produktuak ere izango dituzte, hala nola, **Negozio Kontua**; ordainketarako pasarelak, **TPV** modernoak, edo **‘Bizum negozioak’** tresnaren bidez ordaindutako erosketak, tartean.

Hitzarmena negozioentzat espreski sortutako arrisku-anitzeko aseguruarekin, edo eskaintzarekin osatzen da, saltoki komertzialetara bereziki bideratua.

Finantza-abantailen sorta zabalarekin batera, luzatu daitekeen urtebeteko indarraldia izango duen hitzarmenak, enpresa sustapen eta animazio ekimenei



laguntza emateko lerroak ditu, esate baterako, **'Opari' txartelen** zozketak, urtero egiten den **Bilboko Komertziorako Sarien** banaketa ekitaldia, gazteentzako eta adinekoentzako **sustapen-jarduerak** edo merkataritzarekin zerikusia duten **dibulgazio jardunaldiak**.